



ESKU-AHURREKO HIPERHIDROSIAREN TRATAMENDUA TOXINA BOTULINIKOAREKIN.

- Komeni da tratamenduaren egunean beste norbaitekin etortzea.
- BARAURIK etorri behar duzu (bezperako afaritik), adierazten dizugun egunean, toxina botulinikoarekin (Botox®) infiltrazioak egiteko.
- Toxina botulinikoa infiltratu aurretik, eskuko nerbio ertain, kubital eta erradialaren blokeoa egingo da edo anestesia lokal-erregionala emango da, infiltrazioak minik egin gabe egiteko.
- Infiltrazioak egin ondoren, ezingo duzu gidatu, eta muskuluak ahul sentituko dituzu, beste ondoez batzuekin batera (beroa, edema eta abar).
- Bestelako ondoezik nabaritzen baduzu, galdetu dermatologoari.
- Tratamenduaren biharamunean, ohiko jarduerak egin ahal izango dituzu.
- 15-30 egunetik aurrera, hiperhidrosiak hobera egiten duela nabarituko duzu. 6 hilabete iraungo du, eta, batzuetan, baliteke 12 hilabete irautea.
- Hitzordua eskatu behar duzu tratamendua egin ostean 15 eguneko epean Dermatologiako Kanpo Kontsultara etortzeko.